



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Zapaterok ETArri musu-truk utzi ote zion Moncloako giltza?

Euskal politikako solas-lekuetan zaharrak berri entzuten hasiak gara beste behin ere. Solasen doinuak ezagunak egiten zaizkigu, tamalez. Betikoen aurkako espetxeratze aginduak eta betikoen aurkako bonba hotsek errealitatearen alde latzera ekarri gaituzte enegarrenez.

MIKEL ASURMENDI

BAKE ETA NORMALIZAZIO PROZESUA. Hasiera edota esaldi hau bera erabili genuen orain urte bat euskal gatazkak bizi zuen egoera aztertzeko. Bakea eta normalizazioa ekar zitzakeen –Espainiako Gobernuaren eta ETAREN arteko nahiz euskal alderdi politikoaren arteko elkarriketek bidera zezaketen– prozesu politikoa zalantzan ikusi genuen, baita prozesu politikorik izan ezean aro politiko berririk ez zela izango ikusi ere. Egun, argi dago, prozesurik ez dago, eta, gaurko egunez, aro politiko berri baterako aukerarik ere ez.

Duela urte bat (2006ko azaroa) ugarriak ziren prozesuari buruzko espekulazioak eta interpretazioak. Hiru mugarri nagusi izan ziren prozesura iristeko ibilbidean: Batasunaren Anoetako Proposamena (2004ko azarokoa). ETAREN

su-eten iraunkorra (2006ko martxokoa) eta Espainiako Rodríguez Zapatero presidentek Diputatuen Kongresuan ETAREkin elkarriketak abiatzeko aditzera eman zuten erabakia (2006ko ekainekoa).

Iazko azaroan ere, “prozesurako balizko ibilbide orriko etapa batzuk ez zirela behar bezala itxi” idatzi genuen. Gure interpretazio soila zen, noski. Ibilbideko trena edota gidoia anbigua ote zen genioen, halaber. Handik gutxira, abenduan, ETAK Barajasko atentatua burutu zuen eta PSOEek prozesua amaitzat jo. Prozesuaren amaiera argiago geratu zen hartara, eta nondik norako batzuk “argitzen” joan ziren geroago. Argitzen diogu, atentatua izan baino

lehenago eta ondoren, prozesuaren tes-tuingurua osa lezaketen hainbat gertaera ezagutuz joan ginelako apurka-apurka. Gertaera horietako nagusia (2006ko azaroan bertan) “Loiolako bilerak” izan ziren, PSOEek, EAJK eta Batasunak burutuak. Gertatua ez dugu zehatz-mehatz ezagutu, noski, ondorioak bai ordea. Antza, PSOEek dioenez, ezker abertzalearen proposamena –Hegoaldeko lau herrialdetako autonomia eta erabakitze eskubidea jarri bide zituen mahai gainean– ez zetorren bat ordurarte proposatutakoarekin. Batasunak dioenez, EAJK bat egin zuten PSOEek proposamenari emandako ezetzarekin. Josu Jon Imazen esanetan Batasunak –ETAREN aginduz– 180 graduko bira eman zion bere ibilbideari, baita Batasunak Anoetako Proposamenaren zen-

tzua aldatu zuela esan ere. ETAk, berriz, Espainiako Gobernuari beste "egutegi" bat mahaigaineratu izana leporatu zion eta EAJri PSOEren estrategiarekin bat egitea. Trenek taka egin zuten nonbait. Harrezkero, matxuratu-tako trenak ibili ziren atzera-aurrera burdinbideetan. Maiatzean burutu omen ziren ETA-Gobernuaren eta PSOE-Batasunaren arteko azken bile-rak. Ekainean ETAk su-etenaren amaiera eta bere fronte guztien erabile-ra iragarri zituen. ETAREN azkeneko gogoeta aipagarriena hauxe izaki: ETAk ez dio beste negoziazio prozesu bati ekinen berriz, aldez aurretik euskal alderdi politikoen artean "akordio poli-tiko erresolutiboa" ixten ez bada (*Zuba-te* 112. zenbakia).

Garai zaharrak berri

Prozesuak iraun zuen bitartean eta berau amaitu ostean gertakari politi-ko esanguratsuak izan dira. Hona, besteak beste, mugarrri batzuk: Nafarroako herritarren gehiengoak espero zuen UPNko Gobernuaren aldaketa ez izatea eta ondorioz, frus-trazioa. NaBairen eta PSNren arte-ko nafar gobernu osatu ezinak PSOEek Espainiako Estatuarekiko duen morrontza agerian utzi zuen, baita PSNk PSOErekiko duen men-pekotasuna berretsi ere. Bestalde, EAJ barruko bi joerak areago azaleratu ziren. Orain arte Imazek eta Egibarrek bideratuak eta aurrerantzean EBBko buru berria izango bide den Iñigo Urkulluk bateraraziko dituenak. Hala-ber, berriki, Eusko Jaurlaritzaren pro-positamen berria ezagutu dugu EAeko Ibarretxe lehendakariaren ahotan. Iba-rretxe Planaren bigarren ekitaldia edo Ibarretxeren ibilbide orria ere deitua. Eskaintza politiko berrian lehendaka-riak herri galdeketa iragarri du 2008ko urriaren 25erako. Aldi berean, Arnaldo Otegi, Juan Mari Olano, Joseba Alvarez eta Oihana Agirre kideez gainera, Bata-suneko Mahai Nazionalaren hamazazpi kide espetxeratuak izan dira ETAKo kideak izatearen akusaziopean. Baltasar Garzon epailearen erabaki arbitrarioak zuzenbideko edozein estatu zalantzan jarri du berriz ere, are zalantzagarriago-ak dira baina, Zapaterok euskal auzia konpontzeko zituen ustezko nahiak edo ahalak.

Ekainaz geroztik, ETAREN atentatu saiakera gehienak ezerezean utzi zituz-

ten Espainiako nahiz Frantziako poli-ziek. ETAk Durangon –Guardia Zibi-laren kuartela helburu– zein Zarau-tzen –Ertzaintzaren egoitza helburu– burutu zituen bi ekintzek pertsonen bizia akabatzea jomuga zuten susmoa piztu zuten. Bilbon, urriaren 9an, PSE-EEko Galdakaoko zinegotzi Juan Carlos Domingoren bizkartzain Gabriel Ginesen aurka egindako aten-tatuak duda-muda guztiak uxatu ditu. ETAk jomuga guztiak itu edo helburu direla berretsi du. Alegia, 2003ko maiatzetik 2006ko urrira bitarte ETAk ez zuen inor hiltzeko jomugan hartu. ETAk, azkenekoz, Bonifacio Martín eta Julian Embid poliziak hil zituen Zangotzan. Harrezkero, hildakoak atentatuen alboko ondorioz izan dira. Barajaskoak, kasu.

“Prozesuan aritutako aldeek prozesu baterako beste oinarririk ez dagoela badiote, elkarrizketaren eta akordio politikoaren aurrean beste alternatibarik ez dagoela badiote, zer berri ekar dezake ETAREN jarduera armatuak?”

Bide orria eta jarduera armatua

PSE-EEko presidente Jesus Eigure-nek –prozesuaren diseinatzaile nagusietako bat izan omen dena– prozesua-ren oinarriak sendoak zirela aditzera eman zuen honen abiapuntuan. Proze-suaren amaiera begi-bistakoa izanda ere, horren garrantzizkoa –izan– den prozesua abian jartzeak Espainiako Estatuaren eta ETA erakundearen –euskal gatazka biziarazten duten bi aldean– arteko indar korrelazioa alda-tua zela ulertu genuen, baita bi aldeek gatazka bideratzeko eta auzi politiko ebazteko aukera politiko berriak lan-duak eta onduak zituztela ere. Proze-suak porrot egin arren, ETAREN jar-duera armatu mugatuak PSOEko Gobernuari irtenbide politiko negoziatua gauzatzeko zirrikitua utziko zion esperantza genuen. Gabriel Gines biz-kartzainaren aurkako atentatuarekin ba al dago esperantzarako zirrikiturik?

Negoziatio prozesuak frakasatu arren, honen ondorengo garaia ez zela Lizarra-Garaziko ondorengo-a bezala izango barneratu genuenok

oker geundela pentsatzen hasi beha-rra daukagu. Alabaina, galdera da: ETAk orduan ekin zion beste ziklo antzeko bati ekitekotan al dago? Prozesua gauzatzeko erabilitako oinarriak eta zubiak zutik atxikitzen ahal dira ETAREN ofentsiba hilgarri berri baten ondoren? Areago, prozesuan arituta-ko aldeek prozesu baterako beste oinarririk ez dagoela badiote, elkarriz-ketaren eta akordio politikoaren aurrean beste alternatibarik ez dagoe-la badiote, zer berri ekar dezake ETA-ren jarduera armatuak? Posible izango al da prozesu berri bat eraikitzea jar-duera armatuaren ziklo odoltsu baten ostean? Ibarretxeren ibilbide orriak eta ETAREN jarduera armatuak izate-rik ote elkarren ondoan?

Moncloako giltza

Eusko Jaurlaritzaren proposame-nak lau mugarrri ditu bidean, Iba-rretxeren bide orrian urrats nagusiak bezala joak. Espainiako Gobernuko presidenteari itun poli-tikoa eskaintzen dio Ibarretxek. Akordioa eman daiteke edo ez. Akordioarekin edo gabe, erreferen-duma egingo omen du Ibarretxek. Artean, erreferenduma egiteko bai-menik ez badago, hauteskundeak aurreratu eta berauek baliatu litzake erreferendum moduko bat gauzatzeko. 2008ko urriaren 25ean, erreferenduma egin ezean herri kontsulta ez loteslea burutzeko prest bide da lehendakaria. Halaber, alderdien arteko akordioa balitz, 2010eko bigarren seihilekoan, negoziatio prozesuaren akordioa berresteko erreferendum erabakigarria proposatzen du. Bien bitartean, ibilbi-de orriak berak hamaika xenda izan ditzakeenez, Downing Streeten adie-razpenaren antzeko batek akordio –EAEko lehendakariaren eta Espai-niako presidentearen arteko harreman-bidez– berrietarako bidea zabaldu lezake.

Dena da posible, politika posiblea-ren artea baita. Gure inozentzian, gal-dera pare bat: Espainiako Kongresu-rako hauteskundeak datorren ekainean izaki, pentsa al daiteke Zapatero izanen dela presidente Iba-rretxeren bide orria garatu bitartean? Hau da, Zapaterok onetsi zuen prozesuaren bitartez Moncloako giltza ETAREN esku jarri zuen. Giltza musu-truk utzi ote zion? ■